

## 2017-2020 Plan Estrategikoa eta 2016-2017 ikasturteko Gestio Plana onartu dituzte Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko bazkideek

2017/02/22

Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko bazkideek urteko Batzar Orokorra egin zuten pasa den hilaren 21an. Batzarrean onartu zituzten, besteak beste, 2015-2016 ekitaldiko Gestio Txostena, 2017-2020 Plan Estrategikoa eta 2016-2017 Gestio Plana. Gainera, Eskoriatzako campusean egindako bileran, aurkeztu zuten eta ikasturte horretako memoria. Era berean, Kontseilu Errektoreko, Kontseilu Sozialeko eta Zaintza Batzordeko kide berriaren izendapenak ere onartu zituzten.

Batzar Orokorrean parte hartu zuten Amaia Agirre Errektore Kontseiluko presidentea, Bixente Atxa MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektoreak, Begoña Pedrosa fakultateko dekanoa eta Igor Ortega Errektore Kontseiluko presidenteordeak.

Aho batez onartutako 2017-2020 Plan Estrategikoak hiru ardatz nagusi ditu:

1. Fakultateko hezkuntza proiektua irakaskuntza nahiz ikaskuntzako eredu berritzaile baten bidez garatzea, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko balioetan oinarrituta.
2. Ikerketa+Transferentzia+Bizitza Osorako Ikaskuntza (LLL) sustatzea, ahaleginak diziplinarteko lerro batzuetan ardaztuta.
3. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen iraunkortasun ekonomikoa eta giza iraunkortasuna bermatuko duen negozio eredu bat ezartzea.

Bazkideen bileran azaldu zituzten Plan Estrategiko berria gauzatzeko diseinatzen eta inplementatzen hasiak diren 10 proiektuak.

Gainera, Batzar Orokorrean aurkeztu zuten 2015-2016 ikasturteko memoria. Txosten horrek jasotzen ditu, beste kontu batzuen artean, fakultatearen egoera eta ikasturtean jorratutako ekintzak.



Batzar Orokorra, Eskoriatzako campusean.